



**LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN 2011ko
ABUZTUAREN 3ko EBAZPENA, 2011/2012 IKASTURTEAN
ORDEZKAPENAK EGITEKO HAUTAGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDAN,
2011ko UZTAILAREN 27an ARGITARA EMANDAKOA, ANTZEMANDAKO
AKATSAK ZUZENTZEN DITUENA.**

Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2011ko ekainaren 10eko ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrenda.

2011ko uztailaren 27an argitara eman da 2011/2012 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien behin-betiko zerrenda, zerrenda horren kontra jarritako gorako errekurtsioak aztertu ondoren.

Zerrenda argitara ematean akatsak gertatu direla egiaztatu ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak emandako erredakzioan, 105.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“administrazio publikoek, ofizioz edo interesatuen eskariz, edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte beren egintzetan dauden akats materialak, izatekoak edo aritmetikoak”*, aipatutako legeria eta bat datorren gainontzekoa ikusita,

EBATZI DUT

Lehena.- Ondorengo terminoetan zuzentzea 2011/2012 ikasturtean ordezkapenak egiteko 2011ko uztailaren 27an, gorako errekurtsioak ebatzi ondoren, argitara eman zen hautagaien behin-betiko zerrendaren akatsak:

-- Rubén Arcadio Sodupe Villaro jaunari emandako puntuazioa zuzentzea. Izan ere, guztira 46,90eko puntuazioarekin agertu behar du Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako espezialitateetan, eta 61,90 punturekin Musika Irakaskuntzetako espezialitateetan.

-- Iban Gutiérrez Azpillagari emandako lan-esperientziaren egunak zuzentzea. Atal honetan 2010 egunekin agertu behar du.

-- Leire Guerrero Pérez andreari esleitutako lurraldeak aldatzea. Izan ere, ez du Hezkuntza Laguntzako espezialisten kategorian (5113) Bizkaian agertu behar; Araban bakarrik agertu behar du.

-- Maite Segurola Garmendia andreari esleitutako lurraldeak aldatzea. Izan ere, ez du Hezkuntza Laguntzako kategorian (5113) Araban eta Bizkaian agertu behar; Gipuzkoan bakarrik agertu behar du.



-- Ainara Miguel Luque andreari Zeinu Mintzairaren Interpretaren kategorian (5114) emandako ordena-zenbakia aldatzea. Jarraian esaten den eran agertu behar du:

Araba: 35. zenbakia

Gipuzkoa: 33. zenbakia

Bizkaia: 43. zenbakia

-- Ziortza Kamiruaga Garitaonaindia andreari Zeinu Mintzairaren Interpretaren kategorian (5114) Bizkaiko lurralde historikoan emandako lanaldiaren aukera aldatzea. S-rekin (lanaldi osoan eta murriztuan) bakarrik agertu behar du lurralde horretan.

-- Janire Alonso Baniandrés andreari Zeinu Mintzairaren Interpretaren kategorian (5114) Bizkaiko lurralde historikoan emandako lanaldiaren aukera aldatzea. S-rekin (lanaldi osoan eta murriztuan) bakarrik agertu behar du lurralde horretan.

-- Olatz Llano Uranga andreari emandako puntuazioa zuzentzea. Guztira 29,50 punturekin agertu behar du Haur eta Lehen Hezkuntzako Haur Hezkuntza espezialitatean.

-- Arantza Montaña López andreari emandako puntuazioa zuzentzea. Guztira 15,45 punturekin agertu behar du Haur eta Lehen Hezkuntzako Haur Hezkuntza espezialitatean.

-- Olaia Miranda Porto andreari emandako puntuazioa zuzentzea. Guztira 15,42 punturekin agertu behar du Haur eta Lehen Hezkuntza espezialitateetan.

-- Amaia Beristain Gastesio andreari emandako puntuazioa zuzentzea. Guztira 13,75 punturekin agertu behar du Zurgintzako eta altzarien fabrikazioa eta instalazioa espezialitatean.

--Maitane Falagan landa andreari Zeinu Mintzairaren Interpretaren kategorian (5114) Araban lurralde historikoan emandako lanaldiaren aukera aldatzea. N-rekin (lanaldi osoan) agertu behar du lurralde horretan

Bigarrena.- Interesatuak gorako errekurtoa jarri ahal izango dute administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abuztuaren 3a

LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA

JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA